


PRENTSA OHARRA

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAK 931.015 BISITARI IZAN ZITUEN 2013. URTEAN


Guggenheim Bilbao Museoak **931.015** bisitari erakarri zituen 2013an. Kopuru hori, egoera ekonomiko zaila aintzat hartuta, positibotzat jotzen da eta ekitaldi honetarako aurrez ikusitakoa betetzen du.

Bisitarien jatorriari dagokienez, azpimarratzekoa da atzerritarren kopurua, 2012. urtekoa baino zertxobait handiagoa izan zena: %65 izan ziren; gehienak Frantziakoak, Erresuma Batukoak, Alemaniakoak, AEBkoak eta Italiakoak izan ziren. EAEko bisitariak %12 izan ziren, 2012ko antzeko kopurua; estatuko bisitariak, aldiz, 2012an baino %1 gutxiago izan dira —guztira bisitarien %23—.

Bisitarien ehunekoak jatorri geografikoaren arabera



Atzerriko bisitarien ehunekoak jatorri geografikoaren arabera



Aipatzekoa da *L'Art en guerre. Frantzia, 1938-1947* eta *Barroko neurrigabea. Cattelanetik Zurbaranera* aldi baterako erakusketen bisitari kopuruak: lehenengoak 580.203 bisitari izan zituen eta bigarrenak 402.212.

Bestalde, www.guggenheim-bilbao.es webgunean 1.360.068 bisitaldi izan ziren 2013an, eta 5.791.460 orrialde begiratu ziren.

Hezkuntza-egitarauai dagokienez —Guggenheim Bilbao Museoak askotariko parte-hartzaileentzat antolatzen ditu, hala nola, irakasleentzat, haurrentzat, familientzat, gazteentzat, Lagunentzat, baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat...—, 468.961 pertsonak esku hartu zuen 2013ko jardueraren batean. 2013an, hezkuntza eta kultur jardueren egitarauak gizarte-ekintza izaera nabarmena izan du, arte moderno eta garaikidea albait pertsona gehienei helarazteko. Hartara indartu dira: Gurutzetako eta Basurtuko ospitaletako haurrentzako arte-egitasmoa —ikusgarriagoa egin da eta tresna berriez hornitu da—, behar bereziak dituzten taldeentzako bisitaldiak, bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako bisitaldiak, adinekoen bisitaldiak eta boluntarioen hitzaldi eta tailerrak; azken horiek askotariko elkarteetan egiten dira, hala nola, adinekoenetan, imigranteenetan, drogamenpekotasunen errehabilitazioan laguntzen dutenetan, emakumeenetan eta kultur elkartetan, besteak beste.

Kide Korporatiboen Programari dagokionez, egun 113 enpresa eta erakunde daude horretan. Beheko kategorietan enpresen kopurua apur bat gutxitu bada ere, enpresen lankidetzak oinarritzakoa da oraindik ere Museoaren finantzaketarako.

Banakako Kideen programan urte amaieran ia 15.600 Lagun ziren; kopuru horrek aditzera ematen du hurbilekoek Museoa babesten dutela.

Krisi ekonomikoa dela eta, 2013ko martxoan **Erdu egitasmoa** jarri zuen abian Museoak, langabezian daudenekiko konpromisoa aditzera emateko. 2.137 pertsona sartu dira programan bederatzi hil hauetan, eta 3.143 bisita egin dira. *Erdu* programak 2014an jarraituko du. 2013ko erabiltzaileek, langabezian segitzekotan, txartela berritu dezakete Museoko Informazio mahaian; horretarako indarrean dagoen Eskeraren Alta eta Berritzeko Agiriaren (EABA) kopia bat aurkeztu beharko dute.

Guggenheim Bilbao Museoaren jardunak 2013. urtean **inguruan izandako eragin ekonomikoaren** azterketak honako emaitzak ekarri ditu:

- 310,5 milioi euroko guztizko gastu zuzena egin zen Euskadin 2013an Museoaren jardunaren ondorioz.
- 273,8 milioi eurotan aberastu zen BPGd 2013an Museoaren jardunaren ondorioz.
- 42,15 milioi euroko sarrera gehigarriak izan zituzten Euskal Ogasun Publikoek jardura ekonomiko horren eraginez.
- 5.876 lanpostu gordetzen lagundu zuen jardura ekonomiko horrek.

Azkenik, Europako kultur erakundeen artean, Guggenheim Bilbao Museoa aurreko urtearen erdian da **autofinantzazioaren arloan**; %69 ingurukoa izan zen 2013an.